

Atzerritarren Legearen 29. artikulua zehazten du zer egoeratan egon daitezkeen atzerritarrak Espainian:




Egonaldi-egoeran

Espainiako lurraldean 90 egunetik gorakoa ez den denboraldian egotea da (ikasketetarako, ikasle-trukerako, lanekoak ez diren praktiketarako eta oluntario-zerbitzuetarako izan ezik).


Bizilekua izateko egoeran

Aldi baterakoa: baimena ematen du Espainian egoteko, **90 egunetik gorako eta bost urtetik beherako epealdian.**

Iraupen luzekoa: baimena ematen du Espainian **iraupen-mugarik gabe bizitzeko eta lan egiteko**, espainiarren baldintza berberetan.

Legeak dioenez, **bizilekua izateko egoera edo egonaldi-egoera lortzeko beharrezkoak diren izapideak beren jatorrizko herrialdean bertan egin behar dituzte** atzerritarrek, baina...

... **baldintzak betetzeko zailtasunen edo ezintasunaren ondorioz**, turista moduan etortzen dira, gero egoera irregularrean geratzen dira, eta, ondoren, **salbuespeneko bidera jo behar izaten dute lehen baimena lortzeko.**

Zergatik da **hain zaila jatorrizko herrialdean izapideak egitea?**

Ez delako oso ohikoa ezertaz ezagutzen ez zaituen pertsona batek zuri urtebeteko kontratua egin nahi izatea, lanbide-arteke gutxieneko soldata ordaindu nahi izatea, eta, horrez gain, izapideak egiteko eta bisa lortzeko behar den denbora guztia (hilabeteak) itxaroteko prest egotea. Eta, gainera, zu ezagututa ere, lehentasun nazionalaren printzipioa dago indarrean, eta horren arabera, espainiarrek edo Espainian baimenaz bizi diren atzerritarrek dute lehentasuna.



Beraz, atzerritar batek bere administrazio-egoera legeztatu ahal izateko **salbuespenekoak izan beharko luketen inguruabarrak arau orokor bihurtu dira.**

Zein dira **bizitzeko edota lanerako baimen bat lortzeko bide nagusiak**, behin pertsona Espainiako lurraldean dagoenean?



GIZARTEAN ERROTZEA

orain, **persona enplegataileak** ezagutzen zaitu, baina **prest egon behar du zu urtebeterako kontratatzeko**, lanbide-arteke gutxieneko soldata ordaintzeko, bai eta hilabeteak itxaroteko ere, izapideak amaitu arte.

FAMILIAREN BIDEZ ERROTZEA

Espainiako lurraldean jaiotako adin txikiko baten ama/aita izatea. Erraza dirudi, baina ez da berehalakoa eta zure jatorrizko herrialdean indarrean den zuzenbidearen arabera da.



LANAREN BIDEZ ERROTZEA

horrek dakarrena **da salatu egin beharko duzula modu irregularrean enplegatuta eduki zaituen pertsona**. Hori dilema moral handia bihurtzen da berez egoera zaugarrian dagoen pertsonarentzat. *Salatu egin behar al dut, modu irregularrean bada ere lana eta, beraz, bizitzeko aukera eman didan pertsona?*